

1992ko OTSAILAREN 19ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamabiko otsailaren hemeretzian, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigor Arreseigor Bengoetxea; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste, bat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Idazkariak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTEAREN (EHNE) MOZIOA:

Nekazaritza Batzordeko partaidea den: Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunak, Euskal Herriko Nekazarien Elkartearen (EHNE) Mozioa aurkeztu du, eta honela dio:

Pasa dira dagoeneko urte batzuk Mendi Nekazaritzako Politika martxan jarri zenetik, eta gaur egun Politika berezi horretarako diru-laguntzak Gipuzkoako eskualde guztietara iristen dira, Gipuzkoa osoa Mendi Nekazaritzako zonalde bezela kontsideratua baitago.

Politika horren helburu nagusia, mendiko zonaldeentzako lege-errejimen berezi bat martxan jartzea izan da, nekazal zonalde horien berpizte bat, hau da, garapen orokor bat lortu asmoz, gizarte eta ekonomia mailan, bertako nekazal ekintza, biztanle kopurua eta ingurugiroa kontserbatzearekin batera.

Horretarako, hainbat erakunde sortu dira, eta tartean garrantzitsuenetarikoa, eskualde bakoitzean eraturiko Mendi Nekazaritza Elkarte da, inguruan inplikaturiko indar guztiak (bailadko nekazariak, Udaletxeak, industri agroalimentarioak,) politika horren prestaketan protagonista izanik, eta

eskualde bakoitzeko problematika bereziarekin lotura estua gorderik, lan-egitarau bereziak prestatu eta aurrera eraman eta azken baten ingurua dinamizatzeko urratsak emateko, beren partehartzearen bitartez.

Mendi Nekazaritza Legeak garbi uzten du Administrazio desberdinen arteko koordinaketaren garrantzia eta inguruko agente guztiek ekintza bateratu eta programatu bat eramateak duen inportantzia.

Mendi Nekazaritzaren Legeak, bere helburuak lortzeko, komeni den laguntza teknikoa emateko aukerak eskeini behar direla dioenez, eskualde bakoitzean tekniku-animatzaile-promotore baten figura izendatua dago, bertako jerente antzera.

Beraz, nahiz eta zoritxarrez oraindik ez zaion behar den etekinik atera, oraingo egiturak Mendi Nekazaritzaren funtzioak egoki bete ditzake, eskualde bakoitzean lan eta elkartasun giro bat sortu eta bertatik bertako arazoei irtenbidea eman eta dinamizatzeko.

Hala ere, eta hau da gure mozioaren arrazoia, Diputazioaren azken proposamenaren arabera, Mendi Nekazaritzan zenbait aldaketa ematen ari dira, gure ustez Politika hori okerreratuko dutenak:

Tekniku-animatzaile-promotore horien figura zalantzan jartzen da eta dirudienez kentzeko asmoa dago, dagoeneko Urola-Kostan kentzea erabaki delarik.

Elkarte Anonimo Instrumental bat sortu nahi da, hor erabakiko direlarik banatuko diren diru-laguntzetarako erizpideak et beraz Mendi Nekazaritzako Politikaren norabideak eta etorkizuna. Itxura guztien arabera, Diputazioak izango du bertan pisu eta ordezkari nagusia.

Guzti honek esan nahi du, Politika parte-hartzaile zuzen eta ireki batetatik, oso-osorik Diputazioak zuzenduriko Politika batera pasa gaitezkeela, interesaturiko agente zuzenen parte-hartze eta iritzietatik urrutiratuaz, ekintza

zeharo instituzional eta ofizialtasunez betea martxan jarritz.

Gure ustez Probintzia mailako Elkarte batek, ezin dezake ordezkatu eskualdeetako dinamika, neurri hauek Udaletxeek dituzten ahalmen edo kompetentziak gutxitzeaz gain, bailada bakoitzean dagoen dinamika indargabetzeko arriskua bait dakarte.

Horrekin batera, tekniko-promotorearen figura desagertzearekin, zuzeneko dinamizataile eta bertako gaien eramale eta piztaile zuzena kentzen da, horrek ere zentralizazioaren kalte guztiak areagotuko dituelarik eta zenbait eskualdetan martxan jarririko ekimen batzuk hankaz gora boteaz.

Horregatik, eta Udaletxe horrek ere Mendi Nekazaritza eskualdean parte hartze zuzena duenez, eta aurrera ere lan horretan bere aportazioa egiteko asmoak azaldu dituenaz,

ESKATZEN DUGU:

Diputazioak Mendi Nekazaritzako agente zuzenekin, tartean Udaletxeekin, kontatu gabe hartutako erabaki horien ondorioak azter daitezela eta ekar ditzaketen kalteetaz jabeturik, hurrengo erabakiak har daitezela:

DIPUTAZIOAK ERABAKITAKO NORABIDE BERRIAK EZ ONARTZEA, ETA ESQUALDE HONETAN GAUR EGUN DAUDEN EGITURAK, BERE TEKNIKU LAGUNTZAILEAREKIN HAU DA, JERENTEA MANTENTZEA, ETA LAGUNTASUN HORI HOBETZEA DAUDEN PREMIEN ARABERA, horrezaz gain, Mendi Nekazaritzaren oraingo egiturak indartu eta bultzatu, legeak agintzen dien funtzioak hobeto betetzeko guztion aldetik ahaleginak eginez, benetako Mendi Nekazaritza batetarako Politika integratzaile eta eraginkor bat martxan jar dezagun.

Mozioa, aho batez onartu da.

ERROLDA BERRIKUNTZA:

Idazkariak, hitza harturik, 1.992ko Urtarrilaren 1era eginiko Biztanleen Udal Erroldaren Berrikuntza aurkeztu du, eta honela gelditzen da:

	<u>GUZTIRA</u>	<u>GIZONEZKOAK</u>	
<u>EMAKUMEZKOAK</u>			
1.991ko Martxoaren 1era Eskubidedun Biztanlegoa	697	371	326
1.991ko Martxoaren 1etik Urtarrilaren 1era Altak	3	3	---
1.991ko Martxoaren 1etik Urtarrilaren 1era Bajak	4	4	---
1.992ko Urtarrilaren 1era Eskubidedun Biztanlegoa	696	370	326

=====

1.992ko Urtarrilaren 1era eginiko Biztanleen Udal Erroldaren Berrikuntza, aho batez onartu da.

MADRIDEKO ZENTSU BULEGOKO:

Idazkariak, hitza harturik, Madrideko Zentsu Bulegotik bidalitako eskutitzaren berri eman du eta zera dio:

Hauteskunde Legeko 35. Artikuluak aipatzen duen, 1.992ko Urtarrilaren 1era egin beharreko Hauteskunde Zentsuaren Berrikuntza Bidaltzeko epeak pasa direla eta, egin ez denez, Prozedura Administratiboko Legearen 134.2 artikulua arabera, aurre informazioa ireki dela adieraziaz.

Epe hori ez betetzearen arrazoia, INEk bidalitako inpresok erdera hutsez zeudela eta itzuli egin zirela da. Horrek esan nahi du, Udal honetan ez dagoela lan

hori betetzeko inpresorik.

Horren arabera eta Euskararen Araudia Udal Batzarre osoak onartu zuenez, Idazkariak, lege hauste horren ardura, Udal Batzarre Osoaren gain hartzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

GARBITZAILEAREN KONTRATAZIORAKO OINARRIAK:

Alkateak, hitza harturik dio:

Udalak, Udal Etxeen, hau da: Udaletxea, Eskolak, Sendagilearen Kontsulta eta Frontoiako Sauna eta Gimnasioa, garbiketarako, garbitzaile bat kontratatzeko, Donostiako OTEIC etxeak aurkeztutako oinarrien berri eman du, eta hauek dira:

1.- Gutxien Beharrezko Diren Betebeharrak:

- Lizartzan bizi izatea, 6 hilabeteko aintzinatea gutxienez izanik.
- Euskera, idatzia eta mintzatua.
- 18 urte baino gehiago izatea.

2.- Egingo diren Frogak:

- Kurrikulum fitxa betetzea.
- Lanpostua betetzeko erlazionatuta dauden itxuren buruzko idazketa.
- Garbiketaz gai praktikoa.
- Lanpostua betetzeko erlazionatuta dauden itxuren buruzko banakako elkarrizketa.

3.- Merezimenduen Balorazioa:

- Famili Egoera: "Famili Unitatea" beharrak zainduz, partaide (Familiako bakoitzaren) ekintza eta diru sartzea edo ez sartzea aportazioaren arabera.
- Lan Egoera: Prozesu Aukerakorran parte hartzen duen kandidatoarena.
- Esperientzia: Antzeko lanetan, bai bulegoak edo eta erakundeak, etxeak, kaleak, eta... garbiketa lanetan arituak.

4.- Azterketutako Faktoreen Gorapena:

- Elkarriketa	50%
- Garbiketaz gai praktikoa	15%
- Idazketa	5%
- Esperientzia antzeko lanetan ...	10%
- Famili Egoera	15%
- Lan Egoera	5%
Puntuazioa Guztira	100%

=====

Kandidatu bakoitzak 0 eta 10 arteko puntuaketa bat izango luke faktore bakoitzean eta gero goian aipatutako porzentaia ipiniko litzaioke.

Adibidez: 1 Faktorean hamarretik 7 bat izateak: ehuneko 35 bezala izango litzake.

5.- Prozesu Aukerakorraren Eratzea:

Bi suposapen bereiziko ditugu:

A) Hogei baino kandidato gutxiago:

Denei egingo litzaieke, bai idatzizko frogak baita ere banakako elkarrizketak, kandidato guztiak ehunetik gorako puntuaketa bat izango zutelarik.

B) Hogei baino kandidato gehiago:

Bi fase egingo lirateke:

- a) Idatzizko frogak kandidato guztiei, 0 eta 50 puntuen arteko ebaluazio bat lortuz.
- b) A Fasean sei puntuaketa onenak lortu dituzten kandidatoen banakako elkarrizketak.

Azkeneko 6 kandidato hauek, azkenik ehuneko puntuazketaz aztertuak egingo lirateke.

Lanpostuaren Lan-egunak, Astelehenetik Ostiralera eta eguneko 7,50 ordu bete beharko dira. Orduen banaketa, garbitu beharreko lokalen Lan-Orduak kontutan hartuz egingo da.

Baita ere, Administrazioako Komenioaren arabera, E Taldean eta 5. Nibelean sartzea proposatu du, eta 1. Hizkuntz Perfila ezartzen zaio.

Proposamen guzti hauek sakonki eztabaidatuz gero, aho batez onartuak izan dira.

OIHANPISTA ETA UDALARI DAGOZKION BIDEEN ERABILPEN BEREZIRAKO OINARRIEN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA:

Nekazaritza Batzordeko Partaidea den, Jose Antonio Mintegi Arratek, Oihanpista eta Udalari dagozkion Bideen erabilpen berezirako, Oinarrien Ordenantza Erregulatzaillearen berri eman du, bere onarpenerako eta literalki, honela dio:

OIHANPISTA ETA UDALARI DAGOZKION BIDEEN ERABILPEN BEREZIRAKO OINARRIEN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA:

Korporazio Lokalen ondasunak erostea, administratzea eta erabiltzea Erregimen Lokaleko Legeak eta berau erregulatzen duten Erregelamenduek, Korporazio Lokaletako Zerbitzuen Erregelamenduak eta Ondasunen Erregelamenduak bereziki, arautzen dute. Aipatu legeriak aurrikusten du, halaber, Korporazio Lokalek beren eskurantzak erabiliz arautu ahal izango dituztela Bandoak, Ordenantzak, Erregelamenduak, eta abarren bitartez kasu bakoitzari dagozkion zehazpenak.

Jabari publikoko ondasunen erabilera, amankomuna, orokorra, pribatiboa, anormala, etabar izan daitekeena, horrezaz gainera erabilera amankomun berezia aurrikusten du, erabileraren intentsitatea eta lizentziari lotua egon ahal izatea direlarik haren ezaugarri nagusiak.

Erabilera amankomuneko jabari publikoko ondasun bat erabilera baldintza onetan mantentzeak, hala nola mendi pistak eta bideak oro har, ahalegin handia eskatzen du, bai administrazioaren aldetik bai partikular erabiltzaile orokorren aldetik.

Oihanpistetan eragindako kalteak direla eta, kamio asko normal erabili ezinean geratu dira, eta horiek berriztu eta hobetzeari ekin zaio, gehienak erabiltzeko baldintza onetan gelditu direlarik.

Erabilera intentsio eta desegokiak edo neurritz gainekoak berehala hondatzen du zorua, ibilgailu normalek erabil dezaten galeraziz.

Egur ateratze lanak, batipat, pisten erabilera intentsiboa behar du eta gero bideena errepide nagusira heldu arte, beraietan kalte haundiak eginez, normalean areagotu egiten direnak oinarritzko erabilera arauak ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik: gehiegizko zamak, ibilgailu desegokiak, euriteak, eta abar.

Egindako inbertsioek eta gerora egingo direnek behar den eta bestalde erabiltzaile publiko orokorra desiratzten duen errentagarritasuna eduki dezaten, behar-beharrezkoa da erabilera berezia erregulatzea, bideen kontserbazioa eta titulartasun publikoko bide horietatik udalerriko puntu desberdinetara heltzeko egoera ona garantizatzeko.

Ordenantza honekin era espezifikoz erregulatu nahi da lizentzia eskuratzeko derrigortasuna mendi pista bideen erabilera berezirako, baita berme fidantza bat gordailatu beharra.

1. Art.- Ordenantzaren helburua Udal titulartasuneko pista eta bideen erabilera berezia erregulatzea da, jabari publikoko ondasunekin zerikusia duten alorretan Udalari emandako eskumenak erabiliz.
2. Art.- Udal titulartasuneko edozein mota eta mailatako pista eta bideak erabilera orokorreko ondasun publikoak dira.
3. Art.- Udalari dagokio, edozein kasutan, erabilera publikoko ondasunen erabilera desberdinak planifikatu eta erregulatzea.
4. Art.- Ordenantza honen eraginetarako erabilera berezikotzat honako hau hartzen da: tonelada haundiko kamioiak, traktore haundiak, belar ibilgailuak, katedun gurpilezko ibilgailuak eta antzekoak erabiliz materialeak garraiatzea, baita haien ibiltzea ere.

LIZENTZIA ESKURATZEKO DERRIGORTASUNA:

5. Art.- Derrigorrezkoa da lizentzia eskuratzeko, aurreko artikuluan ikustako

iharduerari ekin aurretik.

6. Art.- Debekaturik daude erabilera kasu guztietarako, hogeitona baino gehiagoko pisua duten belar ibilgailu, katedun gurpilezko ibilgailu eta ibilgailu orokorrekin egin beharreko lanak; baita zoruaren gaineko arrastre zuzenekoak edota ondo definitu gabeko errodadura banda dutenak. Salbuetsirik daude ezinbesteko kasuetan iharduera espezifikoko eta puntualak, horretarako behar bezalako baimen espresua izango dutenak.
7. Art.- Lizentzia eskatzeko Alkatetzari zuzendutako idazkia bidaliko da, argi eta garbi adieraziz ibilbide nagusia eta hala badagokio, erabiltzeko beste aukerak, lanen zenbatekoa eta neurriak, ustez behar den denbora eta, oro har, beharrezko informaziorako ezinbestekotzat jotzen diren datu guztiak, promotoreak edota behar bezala identifikaturiko legezko ordezkariak sinaturik.
8. Art.- Eskatutako edo eska litezkeen baldintzak betez eskaria aurkeztuta, tramitean onartuta eta, kasu balitz, gaiaz ulertzen duen Informazio Batzordeak edota bestela Udal enplegatuek entzunda lizentziari baiezkoa edo ezezkoa emango zaio, hura aurkeztu eta gehienez ere hilabeteko epean.
9. Art.- Lizentziarekin batera erabilerazko baldintza orokorrak nahiz kasuaren partikularrak adieraziko dira, beti ere derrigorrez bete behar direnak. Lizentzia hori hirugarren kalterik gabe ulertuko da eta kasu bakoitzean beharrezko baimenak eskuratzeaz salbuetsi gabe.
10. Art.- Lizentziaren eskatzaileak eta aginduzko izaerarekin berme fidantza bat gordailatu behar du, lanak egiterakoan sor litezkeen kalteengatik erantzuteko.

FIDANTZA GORDAILATZEA:

11. Art.- Egun lizentziari atxikirik tipifikatuta dagoen iharduera nagusia egur

ateratzea denez gero, lizentzia eskariari erantsi beharko zaio BAIZER, Oihan eta Izadiaren Kontserbaziorako Zerbitzuak egindako baimen eta neurketa orria, atera beharreko egurraren gutxi gora beherako kopurua gaineratuz.

12. Art.- Ezarri beharreko gutxienerako fidantza, 15.000,- pezetakoa izango da.

Eta gainera, oinarritzko kalkulu gisa HIRUEHUN (300) pezetakoko kopuru unitarioa finkatzen da, luzerako kilometro bakoitzeko edo erabil beharreko pista edo bide frakzio bakoitzeko atera beharreko estereo bakoitzeko.

13. Art.- Garraiatu beharreko materialeak beste mota batekoa balitz, harrobiko materialeak, buztinak, mineraleak, etabar, oinarri unitarioa egurrarentzat zehaztu den kopuruaren arabera kalkulatu da.

14. Art.- Behin fidantzaren kopurua zehazturik, eskudiruan gordailatuko da Udaletxeko kutxan iharduerari ekin aurretik, Fidantza hori, halaber, banketxeko abal finkoaren bitartez utzi daiteke, Udalaren alde zenbateko osoagatik eta Korporazioa amaitu arteko indarraldi espresuarekin.

FIDANTZAREN ITZULKETA:

15. Art.- Utzitako fidantzaren itzulketa edo, kasua balitz, banketxeko abalaren kitapena eskatzeko idazki bat igorri beharko zaio Alkatetzari, lanei amaiera eman zaiela adieraziz, baita egingo liratekeen kalteak erabat konpondu direla.

16. Art.- Aurreko artikuluan aipatutako idazkia aurkeztu eta hilabeteko epean, Udal enplegatuek edo Informazio Batzordeak egindako txostena ikusirik, Alkateak fidantzaren itzulketa erabakiko du, hala badagokio, edota lizentziaren titularrari egin behar dituen konponketen berri emango zaio. Jakinerazpena egin zaionetik hilabetera konponketak egin ez balitu, Udalak egingo ditu promotorearen kontura, utzitako fidantzaren zenbatekotik beharrezko kopurua kenduz.

17. Art.- Baldin eta gordailaturiko fidantzak zuzenean edo zeharka eragindako kalteak konpontzeko gastuak estaliko ez balitu, Udalak erantzunkizun deribatua eskatuko luke, lizentziaren titularraren aurka legezko neurriak hartuz.

Oihanpista eta Udalari dagozkion Bideen Erabilpen Berezirako Oinarrien Ordenantza Erregulatzailerak aztertu eta eztabaidatuz gero, aho batez onartu da.

IBERDROLA:

Energia salmentaren fakturapenari dagokion Prezio Publikorako Udalerrri honetan, 1.991 urtean indar elektrikoen fakturapenean, Iberdrolak aurkeztu duen zinezko aitopenearen berri eman da.

1.991 urteko fakturazioa, 28.811.031,- pezta izan zen, eta Udalak onartutako araudiaren arabera 1,5%eko tasa ezarri behar zaio.

Horren arabera, Udaleko Kutxan, 432.165,- Pezta sartu beharko ditu, Iberdrolak.

Zerga likidazio hori, aho batez onartu da.

ALKATETZAREN DEKRETUAK:

Idazkariak, Alkatetzat luzatutako Dekretuen berri eman du, eta hauek dira:

JOSE BITTOR BENGOETXEA Jaunari, Martanea Etxearen 1. solairuan, berrikuntza obrak egiteko baimena eman zaio. Baldintza: Kanpoko atea, egurrezkoa izan behar duela.

JOSE JABIER MARTINEZ ZABALA Jaunari, Etxezahar Baserriaren ondoan, Ardintzako txabola egurrezkoa egiteko baimena eman zaio. Baldintzak: Txabola egurrezkoa izango da eta teilatua teilez egingo da, eskakizunean azaltzen den bezela eta 6 x 4ko neurriekin. Bidetik gutxienik 10 metro libre utzi behar dira

eta eman den baimena, PREKARIOAN ematen da.

JOSE RAMON ZUBILLAGA ZUBIARRAIN Jaunari, Zubiegi Etxeko terrazari tetxoa eta frentea ixteko baimena eman zaio. Baldintzak: Ixtura leihon kolore berdinekoa izango da eta kristalak lehen daudenen antzeko dibujoarekin.

BENITO URDANPILETA ITURRIOZ Jaunari, Asura Baserriaren Iparraldeko fatxadan, gaur egun etxeari erantsita dagoen bordari, teilatua kendu eta terraza egiteko eta sukaldeko leihoa haunditu eta terrazaraino balkoi berria egiteko baimena eman zaio. Baldintzak: Obra, aurkeztutako marrazkian bezela bainan Terraza, Atetikan metro erdi bat libre utziaz egin behar da.

JOSE M^a AROZENA Jaunari, Zakar Baserrian, lehengo garajearen aldamenean beste bat (Zabalean 4 metro dituen^a% egiteko baimena eman zaio. Baldintzak: Garajearen teilatua teilaz egingo da.

BENITA URDANPILETA ITURRIOZ Andreari, Gure Ametsa Etxearen sukaldeko, egongelako eta bainuko leihoak aldatzeko baimena eman zaio.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du.